

ANDRE KASILDA

ANDRE moko luše negarti bat da.

Koipia ta berriketa, zudurretik mukiya bezela dariyo.

Ori emakume lardaška.

Beti zer esana badu, negarra emendik eta antziya andik, *Mișerere* deitzen diote ausuak.

Izan ere alakošia da bera.

Amugillietako Kašpar'ekin ezkondu zan.

Ezkontza aste-santuko inguruan egin zuten, eta Kašpar'ek zionez, aste santutik etziran atera alkarrekin bizitu ziran bitartian.

Eche artan beti *mișerere* zan. Astiaren zazpi egunetan *pasiyua* zuten.

Negarra ta antziya, malkua ta koipia, eche artara etzan beñere eguarrik irišten.

Beti aste-santuban zeuden, eta ala zirala, jakiña zan zerk etorri biar zuben: eriyotzak.

Ez bat eta ez bi, illa arkitu zuten Kašpar gizarajua.

Andre Kašilda'ren marruak orduban. Echia aidian jarri zuben. Arren karrašiyak entzungo ziran Ernio'ko muturretik.

Inguruko auso guziyak bildu ziran. Eche artan bazan orduban emakumia elchua bezela. Guziyak oju, guziyak karraši, ango zalapartak ikaragarriyak ziran.

Bañan guziyen gañetik, andre Kašildaren antziyak entzuten ziran.

Nere Kašpar gizarajua, ziyon ukabilla añako malkuak botiaz, ez naiz zutzaz beñere aztuko, begiyan aurrian beti irukiko zaitut; bizi ziñala zu ziñan neretzako gizon bakarra, aurrera ere ez det iñor gizase-

meren errañurik ikusi nai; zu, bizi ziñala; zu, il ta ere. Ez ikusi, ez aitatu, ez gogoratu, gizonik ludian danik. Zu bakarrik, zu beti.

Elizak agintzen dituben egunak osatu arte zai egon zan Andre Kašilda, berriz ezkontzeko.

Gure Jaunak ala naiko zuben ta, ziyon erdi negarrez, egin bedi bere borondatia.

Gure Jaunak ala naiko zuben, zioten ansuak, ez dakigu, baña atso lerdan ori beste zenar bat arrapatzeko amorratzen zegola bai.

Eta billatu bigarrena, zion neska zar errechin batek, ez dakit gizonak muñak nun izaten dituzten.

Zana zala, Andre Kašilda ezkondu zan beñepin eta beste zenarren jabe egin zan.

Eta nolakua bera.

Aleluia, deitzen zioten.

Mutil gazte fardel bat, festa ta erromeriya besterik buruan etzeukana, algara ta chuliua ordu guzietan.

Ez dago esan biharrik, ezkondu bitartian oso ondo alkar artzen zute-la. Batak bestiarentzat egiñak ziruditen.

Ori orla gertatzen da beti. Katubak ta šagubat ezkondu biar balute alkarrekin, ezkon-aurrian izugarri ondo etorriko lirake.

Gero dira kontubak. Geroko orrek lanak ematen ditu.

Ta ori gertatu zitzaion Andre Kašilda'ri zenar berriyarekin.

Izan ere nola ondo etorri *Miserere* ta *Aleluia*.

Len bezela asi zan Andre Kašilda negarra emendik eta antziya andik; eta zenbat karraši aundiaguak egin, *Aleluia* algara gozuaguak egi-ten zizkan.

Kiškaltzen jartzen zun emaztia.

—Ai nere lenbiziko zenarra, nere Kašpar gizarajua! ziyon Andre Kašildak, etzuben zure antza aundirik.

—Ez ta naire.

—Ura galdutako samintasuna etzait beñere juango.

Eta ori bein, eta ori berriz, azpeltu azi zuben *Aleluia*; eta zein da gogo alai ta jostallukua zan, prejitzen jarri zuben, eta esan zion azkenik begitik chimpartak botiaz:

—Zaude išilik emakumia, zuri lenbiziko zenarra illa, ez du iñor nik aña samintasun.